



EUSKARABIDEAREN ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO HITZARMENA 2022. URTERAKO

CONVENIO ENTRE EUSKARABIDEA – INSTITUTO NAVARRO DEL EUSKERA Y LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA – EUSKALTZAINDIA PARA EL AÑO 2022

A) XEDEA:

Hitzarmen honen xedea da Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko Harremanetako Departamentuko Euskarabidearen eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaren oinarri orokorrak ezartzea eta sinatzaileek ontzat jotzen dituzten konpromisoen esparrua arautzea, Euskaltzaindiak Nafarroako Foru Komunitatean duen jarduna gauzatze aldera.

B) ZIOEN AZALPENA:

Erakunde biek azaltzen dute:

1. Nafarroako Foru Diputazioa izan zela 1918an Euskaltzaindia sortu zuten erakundeetako bat, eta euskara garatzeko sortu zela Euskaltzaindia.

2. Alde biek, Euskarabideak eta Euskaltzaindiak, ezagutzen eta onesten dutela Nafarroako Foru Komunitatean indarra duten lege esparrua, gaitasuna ematen diena bi aldeei hitzarmen hau sinatzeko eta hitzarmen honen zeinahi ekimen osagarri garatzeko.

C) INDARREKO ARAUDIA

Hitzarmen honek honakoak izango ditu araubide:

A) OBJETO:

El presente Convenio tiene por objeto establecer las bases generales de colaboración entre Euskarabidea – Instituto Navarro del Euskera del Departamento de Relaciones Ciudadanas del Gobierno de Navarra y la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia, y regular el marco de compromisos que los firmantes asumen para posibilitar la actividad de la Institución en lo que a la Comunidad Foral de Navarra concierne.

B) EXPOSICIÓN DE MOTIVOS:

Ambas instituciones exponen:

1. Que la Diputación Foral de Navarra, fue en 1918 una de las instituciones fundadoras de la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia, que se creó para el desarrollo del euskera.

2. Que ambas partes, Euskarabidea – Instituto Navarro del Euskera y la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia, reconocen y aceptan el marco legal vigente en la Comunidad Foral de Navarra, que sustenta y posibilita la capacidad de las partes para la firma de este convenio, y para el desarrollo de cuantas iniciativas lo complementen.

C) NORMATIVA APLICABLE

El presente convenio se regirá por todo lo establecido en las siguientes normas:



1. 573/1976 Dekretua, otsailaren 26koa; dekretu horren bidez ezagutzen zaio Euskaltzaindiari Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia izendapena. 272/2000 Errege Dekretua, otsailaren 25ekoa; dekretu horren bidez Euskaltzaindiaren Estatutuak aldatzen dira.

2. 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari buruzkoa. Foru lege horren 1.2 artikuluan ezartzen da zeintzuk diren foru legearen helburu nagusiak, euskararen ezagutzari, erabilerari, berreskurapenari, garapenari, sustapenari, eta erabilerari eta irakaskuntzari dagokionez, borondatezkotasun, gradualtasun eta errespetu irizpideen arabera; Nafarroan euskarak duen errealitate soziolinguistikoarekin bat. Lege berean, halaber, 1.3 artikuluan, ezartzen da euskalkiek errespetu eta babes berezia jasoko dutela Nafarroan.

3. 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari buruzkoa, Euskaltzaindiari buruz ezartzen duenari dagokionez. Foru lege horren 3.3 artikuluan ezartzen da Euskaltzaindia dela erakunde aholku-emaile ofiziala Nafarroan, euskararen hizkuntza arauak ezartze aldera. Eta 8.2 artikuluan arautzen da Euskaltzaindiak toponimia gaietan duen zeregina.

4. 11/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

5. 303/2019 Foru Dekretua, azaroaren 6koa, Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren Estatutuak onesten dituena. Eta, zehazkiago, 3. artikulua, non Euskarabidearen eskumenak eta eginkizunak ezartzen baitira, eta, horien artean, honako hau: s) Euskaltzaindiarekiko akordio proposamena prestatzea eta haien izenpetzea kudeatzea, baita akordio horien

1. El Decreto 573/1976, de 26 de febrero, por el que se reconoce a la Academia de la Lengua Vasca su denominación de Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia, así como en el Real Decreto 272/2000, de 25 de febrero, por el que se modifican los estatutos de la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia.

2. La Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Euskera, que establece en su artículo 1.2 sus objetivos esenciales relativos al conocimiento, uso, recuperación, desarrollo, fomento, uso y enseñanza, con arreglo a los principios de voluntariedad, gradualidad y respeto; y de acuerdo a la realidad sociolingüística del euskera en Navarra. Ley que, igualmente, establece en su artículo 1.3 que las variedades del euskera serán objeto de especial respeto y protección en Navarra.

3. La propia Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Euskera, en lo que se refiere a la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia. En el artículo 3.3 se reconoce su carácter de institución consultiva oficial a efectos de establecimiento de normas lingüísticas del euskera en Navarra, y en el artículo 8.2 se regula la actuación de la Real Academia de la Lengua Vasca en materia de toponimia.

4. Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones.

5. El Decreto Foral 303/2019, de 6 de noviembre, por el que se aprueban los Estatutos del Organismo Autónomo Euskarabidea – Instituto Navarro del Euskera. Y, más concretamente, el artículo 3, en el que se establecen las competencias y funciones, y entre las que figura la siguiente: s) La propuesta y firma de acuerdos con Euskaltzaindia – Real Academia de la Lengua Vasca, además de



ondoriozko jarduketan jarraipena egitea ere.

Bestalde, Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren Estatutuak onetsi zituen azaroaren 6ko 303/2019 Foru Dekretuaren arabera, aipatutako organismoari dagozkion eginkizunen artean dago Euskaltzaindiarekiko akordio proposamena prestatzea eta haien izenpetzea kudeatzea, baita akordio horien ondoriozko jarduketan jarraipena egitea ere.

D) HITZARMENAREN IRAUPENA.

Hitzarmen hau sinatzen den egunean indarrean sartuko da eta indarraldia 2022ko abenduaren 31n amaituko da; aintzat hartuko da, betiere, hitzarmen honen I letraren a) apartatuan xedatutakoa.

E) AURREKONTUA

2022rako aurrekontua 190.000 eurokoa izanen da, Nafarroako Gobernuaren 2022ko Aurrekontu Orokorren "Euskaltzaindiarekiko hitzarmena lan akademikoetarako, aholkularitzarako, eta euskaren sustapenerako" izeneko B30001 B3100 4816 334100 partidaren kargura.

Ikus aurrekontu xehea I.1 eranskinean.

F) DIRUZ LAGUNDUKO DIREN JARDUERAK

Nafarroan, euskarari dagokionez, Euskaltzaindiak batzorde akademikoen eta egiturazkoen bidez eginen ditu bere lanak, hain zuzen ere.

Nafarroako Gobernuak, 2022an, jarraian ageri diren proiektuetarako eta lanetarako emanen du dirulaguntza; aurrekontuak

realizar el seguimiento de las actuaciones derivadas de dichos acuerdos.

Por su parte, según el Decreto Foral 303/2019, de 6 de noviembre, por el que se aprueban los Estatutos de Euskarabidea – Instituto Navarro del Euskera, entre las competencias que corresponden al citado organismo está la de la preparación y gestión de la firma de la propuesta de acuerdo con Euskaltzaindia – Real Academia de la Lengua Vasca, así como el seguimiento de las actividades que se deriven de dicho acuerdo.

D) PLAZO DE DURACIÓN DEL CONVENIO.

La vigencia del presente Convenio será desde el momento de la firma hasta el 31 de diciembre de 2022, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado a) de la letra I de este convenio.

E) PRESUPUESTO

El presupuesto para el año 2022 será de 190.000 euros, con cargo a la partida B30001 B3100 4816 334100 denominada "Convenio con Euskaltzaindia para labores académicas, de asesoramiento y de promoción del euskera" de los Presupuestos Generales de Navarra de 2022.

Ver presupuesto detallado en el anexo I.1.

F) ACTIVIDADES A SUBVENCIONAR

La Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia desarrollará su labor a través de las distintas comisiones, académicas y estructurales, en todo lo referido al euskera en Navarra.

El Gobierno de Navarra subvencionará los siguientes proyectos y trabajos que desarrollará Euskaltzaindia durante el año



hitzarmen honen I.1. eranskinean zehazten dira.

I. Onomastika eta toponimia lanak egitea.

Gastuen aurrekontua: 28.246,45 euro.

I.I. Euskaltzaindiaren Onomastika batzordera edo Nafarroako Ordezkaritzara heltzen diren eskariak bideratzea eta txostenak prestatzea.

Euskaltzaindiak, urtearen amaieran, berariaz Nafarroarekin zerikusia duten txosten horietatik interes publikokoak izan daitezkeenak Euskarabideari igorriko dizkio, toponimiakoak bereziki, salbu eta, Euskarabideak berak eginiko kontsultetatik helduak izanik, Euskarabidearen esku badaudenak.

I.II. Etxauribarko udalen beharrei erantzuteko oiconimiari buruzko aholkularitza emanen du.

II. Argitalpenak.

Gastuen aurrekontua: 27.964,35 euro.

II.I. Joakin Lizarragaren lexikoaren azterketa ikerketa egitasmoaren emaitzen argitalpena (MENDAUR bilduma).

II.II. Euskara Nafarroako hezkuntzan. Egoera eta aukera berriak. Euskaltzaindiaren XXVI. JAGON Jardunaldia.

III. Paskual Rekalde Irigoien jaunak euskaltzain oso modura eman beharreko sarrera-hitzaldiaren ekitaldia.

Gastuen aurrekontua: 39.703,64 euro.

2022, de acuerdo con los presupuestos que se detallan en el anexo I.1. del presente convenio:

I. Realización de trabajos de onomástica y toponimia.

Presupuesto de gastos: 28.246,45 euros.

I.I. Elaboración de los informes y tramitación de las solicitudes que lleguen a la Comisión de Onomástica o a la Delegación de Navarra de Euskaltzaindia.

Euskaltzaindia, a finales de año, remitirá a Euskarabidea aquellos informes que, correspondiendo específicamente a Navarra, puedan ser de interés público, especialmente los de toponimia, salvo los que Euskarabidea ya disponga, por proceder de consultas realizadas por la propia Euskarabidea.

I.II. Euskaltzaindia ofrecerá asesoramiento en materia de oiconimia a los ayuntamientos que configuran el Valle de Etxauri.

II. Publicaciones.

Presupuesto de gastos: 27.964,35 euros.

II.I. Publicación de los resultados del proyecto de investigación del léxico de Joakin Lizarraga (Colección MENDAUR).

II.II. El euskera en la educación de Navarra. Situación y nuevas oportunidades. XXVI Jornadas JAGON.

III. Acto con motivo del discurso de ingreso del académico de número don Paskual Rekalde Irigoien.

Presupuesto de gastos: 39.703,64 euros.



IV. Euskaltzaindiaren ikerketa-programetan % 25eko parte-hartzea.

Gastuen aurrekontua: 94.085,55 euro.

% 25eko partaidetza Euskaltzaindiaren 2022ko ikerketa-programa hauetan:

IV.I. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak.

IV.II. Orotariko Euskal Hiztegia.

IV.III. Euskal Corpus Onomastikoa.

IV.IV. Euskara Batuaren Ortotipografia.

G) JARRAIPEN BATZORDEA

Jarraipen Batzordea:

Hitzarmen honen jarraipenerako alde biek beharrezkoa jotzen badute, jarraipen batzorde bat eratuko da. Batzorde horretako kide izanen dira Euskarabidearen ordezkariak eta Euskaltzaindiaren ordezkariak.

Euskarabidearen izenean:

- Euskarabideko zuzendari-kudeatzailea edo ordezko izateko berak izendatzen duena. Batzordeburua izanen da.
- Hizkuntza Baliabideen Zerbitzuko zuzendaria, edo ordezko izateko berak izendatzen duena. Batzordeko idazkaria izanen da.
- Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko zuzendaria, edo ordezko izateko berak izendatzen duena. Batzordekidea izanen da.

IV. Participación en un 25 % en los programas de investigación de Euskaltzaindia.

Presupuesto de gastos: 94.085,55 euros.

Participación en un 25 % en los siguientes programas de investigación de Euskaltzaindia correspondientes al año 2022:

IV.I. Diccionario normativo de Euskaltzaindia.

IV.II. Diccionario General Vasco.

IV.III. Corpus Onomástico Vasco.

IV.IV. Ortotipografía del Euskera Unificado

G) COMISIÓN DE SEGUIMIENTO

Comisión de Seguimiento:

En caso de que para el seguimiento de este acuerdo ambas partes lo consideren necesario, se formará una comisión de seguimiento que estará formada por representantes de Euskarabidea y representantes de la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia.

Por parte de Euskarabidea – Instituto Navarro del Euskera:

- El director-gerente de Euskarabidea – Instituto Navarro del Euskera, o persona en quien delegue, que actuará como Presidente.
- El director del Servicio de Recursos Lingüísticos, o persona en quien delegue, que actuará como Secretario de la Comisión.
- La directora del Servicio de Planificación y Promoción del Euskera, o persona en quien delegue, que actuará como vocal.



Euskaltzaindiaren izenean:

- Euskaltzainburua, edo berak izendaturiko ordezkaria. Batzordekidea izanen da.
- Euskaltzaindiaren diruzaina, edo berak izendaturiko ordezkaria. Batzordekidea izanen da.
- Euskaltzaindiak Nafarroan duen ordezkaria edo berak izendaturiko ordezkaria. Batzordekidea izanen da.

Jarraipen Batzordearen bilkurak Hitzarmena sinatu duten erakundeen zainahi egoitzatan egiten ahalko dira, bai eta modu telematikoan ere.

H) DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA

Dirulaguntza abenduaren 31 baino lehen ordainduko da, aurretik gastuen ordainketa-agiriak aurkeztuta.

I) DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATU

Emanen den dirulaguntza Dirulaguntzen gaineko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak ezarritako baldintzen arabera justifikatuko da, ondoren zehazten diren epe eta dokumentuen bidez:

- a) Emandako dirulaguntza justifikatzeko dokumentazioa Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuan aurkeztuko da, behar diren bide administratiboak erabiliz, 2022ko azaroaren 30a baino lehen, gastuei dagokien ordainketa egiteko.
- b) Langile gastuak justifikatzeko, oroitidazki bat aurkeztuko da, non

Por parte de la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia:

- El Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia, o un representante designado por el mismo, que actuará como vocal.
- El Tesorero de la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia, o un representante designado por el mismo, que actuará como vocal.
- El Delegado en Navarra de la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia, o un representante designado por el mismo, que actuará como vocal.

Las reuniones de la Comisión de Seguimiento podrán celebrarse en cualquiera de las sedes de los organismos firmantes del Convenio, así como de manera telemática.

H) ABONO DE LA SUBVENCIÓN


El abono de la subvención se realizará antes del 31 de diciembre, previa justificación de los gastos correspondientes.

I) JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN


La justificación de la subvención concedida, según las condiciones establecidas en la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones se realizará en los plazos y mediante los documentos que se relacionan:

- a) La documentación justificativa de la subvención concedida será presentada en Euskarabidea – Instituto Navarro del Euskera, por las oportunas vías administrativas, antes del 30 de noviembre de 2022, para proceder al abono correspondiente a los gastos.
- b) La justificación de los gastos de personal se realizará mediante la

Euskaltzaindiko langileek proiektuari emandako orduak zerrendatuko baitira, eta horrekin batera nominak, Gizarte Segurantzaren kotizazio agiriak eta PFEZ atxikipenak aurkeztuko baitira.



c) Langile gastuak ez diren bestelako gastu zuzenak justifikatzeko, gastu horiek zerrendatuko dira bakoitzari dagozkion xehetasun hauek adierazirik: zenbatekoa eta ordainketa data. Agiri horiekin batera, fakturak eta beharrezko jotzen diren frogagiriak, bai eta ordainketa agiriak ere atxikiko dira.



Fakturak eta gainerako agiriak modu korrelatiboan zenbakituko dira eta gastuen zerrendan ageri diren hurrenkera berean aurkeztuko dira.

d) Orobat, diruz lagundutako proiektuak eta lanak bukatu ondoren eta dirulaguntza kobratu ahal izateko, Euskaltzaindiak, 2022ko azaroaren 30a baino lehen, egindakoen oroitidazkia aurkeztuko dio Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuari, ezarritako helburuak bete ote diren ikuste aldera.

J) GARDENTASUNA

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 3. c) artikuluan aipatutako entitate pribatuak behartuak daude gardentasun betebeharra betetzera baldin eta, urtebetean, 20.000 eurotik gorako laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen badituzte Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura. Kasu hau horrelakoa izanik, hitzarmen hau sinatu eta, biharamunetik kontatzen hasita, hilabeteko epean, Euskaltzaindiak, modu telematikoan, Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokor Elektronikoaren bidez, jarraian zerrendatzen den informazioa

presentación de una memoria, en la que se recogerá la relación de horas reales dedicadas al proyecto por el personal de Euskaltzaindia, acompañada de las correspondientes nóminas, cotizaciones sociales y retenciones de IRPF.

c) La justificación de los gastos directos, distintos de los de personal, se realizará mediante la presentación de una relación numerada de los mismos donde se detallará para cada uno de ellos su importe y fecha de pago. A esta relación se adjuntará las facturas u otro tipo de documentos con valor probatorio equivalente, así como el documento acreditativo de su pago.

Las facturas y demás documentos justificativos de gasto se deberán numerar de forma correlativa y presentarse en el mismo orden que el que figura en la relación de gastos.

d) Además, una vez realizados los proyectos y trabajos subvencionados, y con el fin de proceder al cobro de la subvención, Euskaltzaindia presentará a Euskarabidea – Instituto Navarro del Euskera, antes del 30 de noviembre de 2022, una memoria final de lo realizado que permita valorar el cumplimiento de los objetivos previstos.

J) TRANSPARENCIA

Las entidades privadas a que hace referencia el artículo 3 c) de la Ley Foral 5/2018, de 17 de mayo, de Transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, están sujetas a las obligaciones de transparencia cuando perciban, durante el periodo de un año, ayudas o subvenciones con cargo a los presupuestos generales de Navarra en una cuantía superior a 20.000 euros. Siendo este el caso, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente al de la firma del presente convenio, Euskaltzaindia presentará, de forma telemática a través del Registro General



jakinaraziko du, bere legezko ordezkariak sinatuta. Horretarako, 1.2 eranskina baliatzen ahalko da.

a) Entitatearen gobernu, administrazio eta zuzendaritza organoen osaketa.

b) Kargu bakoitzak gobernu, administrazio eta kudeaketa eginkizunak zer dedikazio araubidetan gauzatu dituen.

c) Entitateak kargudun bakoitzari aurreko urtean ordaindutako ordainsari gordinak eta gainerako diru konpentsazioak, kontzeptuen arabera zehaztuta.

d) Onuradunaren urteko azken kontuen kopia bat.

Entitateak ekitaldi berean dirulaguntza bat baino gehiago jasotzen badu, ez du informazioa errepikatu beharko dirulaguntza bakoitzerako, salbu eta hasieran eman zituen datuak aldatzen badira. Horretarako, entitateak identifikatu beharko du Foru Komunitateko Administrazioaren zein organoren aurrean aurkeztu zuen, eta noiz.

Betebehar hori bete ezean, emandako dirulaguntza ez da ordainduko, ezta aurrerakinak ere, eta kobratutako zenbatekoak itzuli egin beharko dira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 35.1 c) artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Aurrekoa galarazi gabe, onuradun guztiak behartuak daude unitate kudeatzaileari behar den informazio guztia ematera, aurretiazko errekerimendua eginda eta hamar eguneko epean, frogatzeko betetzen direla maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen II. tituluari jasotako gardentasun betebeharrak (aipatutako foru

Electrónico del Gobierno de Navarra, la información que se relaciona a continuación, firmada por su representante legal, la cual podrá presentarse junto con en el anexo 1.2.

a) Composición de los órganos de gobierno, administración y dirección de la entidad.

b) Régimen de dedicación de cada cargo a las funciones de gobierno, administración y gestión.

c) Retribuciones brutas y demás compensaciones económicas que por parte de la entidad han percibido cada uno de los cargos el año anterior, desglosadas por conceptos.

d) Una copia de las últimas cuentas anuales de la entidad beneficiaria.

En el caso de que la entidad sea beneficiaria de sucesivas subvenciones en el mismo ejercicio, no será preciso reiterar la información con ocasión de cada subvención, salvo que hayan cambiado los datos que se facilitaron inicialmente. Para ello, la entidad deberá identificar el momento y el órgano de la Administración de la Comunidad Foral ante el que la presentó.

El incumplimiento de esta obligación impedirá el abono de la subvención concedida, incluidos los anticipos y conllevará, en su caso, el reintegro de las cantidades percibidas, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 35.1 c) de la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones.

Sin perjuicio de lo anterior, todos los beneficiarios estarán obligados a suministrar a la unidad gestora, previo requerimiento y en un plazo de diez días, toda la información necesaria para el cumplimiento por esta de las obligaciones de transparencia previstas en el título II de la Ley Foral 5/2018, de 17 de mayo, de



lege horrek hizpide ditu gardentasuna, informazio publikoa eskuratzea eta gobernu ona).

Errekerimenduan emandako epea bukatzen bada eskatutakoa bete gabe, hertsapen isunak ezartzea erabakitzen ahalko da, 500 eurotik 5.000 eurora bitartekoak, interesdunari ohartarazpena egin ondoren eta entzunaldia emanda. Isuna hamabost egunetik behin errepikatuko da, errekerimendua bete arte. Isunaren zenbateko osoa ez da izanen dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko bost baino handiagoa. Zenbatekoa zehazteko, ez-betetzearen astuntasuna eta proportzionaltasunaren printzipioa hartuko dira kontuan.

K) DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA ETA ZEHAPEN PROZEDURA

Jarraipenari, itzulketari eta zehapen prozedurari dagokionez, Dirulaguntzen gaineko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak ezarritakoaren arabera jokatu da, eta zehazki ondoko xedapenetan ezarritakoaren arabera:

II. titulua, "Dirulaguntzak itzultzea", I. kapitulua, "Itzulketa", 34., 35., 36. eta 37. artikulua.

III. titulua, "Dirulaguntzen jarraipena eta kontrola", I. kapitulua, "Organo kudeatzaileek egin beharreko jarraipena", 38. eta 39. artikulua, eta II. kapitulua, "Finantza-kontrola", 40. eta 41. artikulua.

IV. titulua, "Arau-haustek eta zehapenak", I. kapitulua, "Arau-haustek", 42. artikulua, eta II. kapitulua, "Zehapen araubidea", 43., 44., 45., eta 46. artikulua.

L) DIRULAGUNTZAREN BATERAGARRITASUNA.

Dirulaguntza hauek bateragarriak dira xede bererako jaso daitezkeen bestelako

transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.

Una vez transcurrido el plazo conferido en el requerimiento sin que el mismo hubiera sido atendido se podrá acordar, previo apercibimiento y audiencia al interesado, la imposición de multas coercitivas de 500 a 5.000 euros. La multa será reiterada por períodos de quince días hasta el cumplimiento. El total de la multa no podrá exceder del cinco por ciento del importe de la subvención. Para la determinación del importe, se atenderá a la gravedad del incumplimiento y al principio de proporcionalidad.

K) REINTEGRO DE LAS SUBVENCIONES Y PROCEDIMIENTO SANCIONADOR

En cuanto al seguimiento, reintegro y procedimiento sancionador se estará a lo establecido en la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones, y más concretamente en las siguientes disposiciones:

En su título II, "Reintegro de las subvenciones", capítulo I, "Del reintegro", artículos 34, 35, 36 y 37.

En el título III, "Seguimiento y control de las subvenciones", capítulo I, "Seguimiento por parte de los órganos gestores", artículos 38 y 39, y capítulo II, "Control financiero", artículos 40 y 41.

En el título IV, "Infracciones y sanciones", el capítulo I, "Infracciones", artículo 42, y capítulo II, "Régimen sancionador", artículos 43, 44, 45 y 46.

L) COMPATIBILIDAD DE LA SUBVENCIÓN.

Esta subvención es compatible con la percepción de otras subvenciones,



dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin. Horietako bat lortuz gero, jakin bezain laster Euskarabideari horren berri eman beharko zaio, betiere, jasotako dirua zertan erabili den frogatu baino lehen.

Hori hala izanik ere, dirulaguntzen kopurua ez da sekula diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izanen, laguntza bakarra izan, edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera jasotakoa izan.

ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, cuya obtención se deberá comunicar a Euskarabidea tan pronto como se conozca y en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.

No obstante, el importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada

HERRITARREKIKO HARREMANETAKO
KONTSEILARIA
CONSEJERA DE RELACIONES
CIUDADANAS

Ana Olo Hualde

EUSKALTZAINBURUA
PRESIDENTE DE LA REAL
ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA –
EUSKALTZAINDIA

Andrés Urrutia Badiola



I.1 eranskina

NAFARROAKO GOBERNUAREN ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA (2022)

2022ko zereginak	GUZTIRA (€)	%
ONOMASTIKA ETA TOPONIMIA LANAK <u>Gastuen aurrekontua:</u> GASTU ZUZENAK - Pertsonal gastuak - Txostenak, lan-enkarguak, bilerak eta bidaiak gastuak	28.246,45 25.403,10 2.843,35	14,9%
ARGITALPENAK 1.- Joakin Lizarragaren lexikoaren azterketa (MENDAUR bilduma) 2.- Euskara Nafarroako Hezkuntzan. Egoera eta aukera berria. Sustapen batzordea (Jagon XXVI jardunaldiak) <u>Gastuen aurrekontua:</u> GASTU ZUZENAK - Pertsonal gastuak - Kanpoko lanak	27.964,35 17.410,35 10.554,00	14,7%
PASKUAL REKALDE EUSKALTZAIN OSOAREN SARRERA-HITZALDIA <u>Gastuen aurrekontua:</u> GASTU ZUZENAK - Pertsonal gastuak - Kanpoko lanak, batzar-dietak eta bidaiak gastuak	39.703,64 16.209,89 23.493,75	20,9%
EUSKALTZAINDIAREN IKERKETA-PROGRAMETAN % 25EKO PARTE-HARTZEA <u>Gastuen aurrekontua:</u> GASTU ZUZENAK - Pertsonal gastuak - Kanpoko lanak	94.085,55 82.561,44 11.524,12	49,5%
2022ko dirulaguntza	190.000,00	%100



Anexo I.1

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EUSKARABIDEA Y EUSKALTZAINDIA (2022)

Proyectos para el año 2022	TOTAL (€)	%
TRABAJOS DE ONOMÁSTICA Y TOPONIMIA <u>Presupuesto de gastos:</u> GASTOS DIRECTOS - Gastos de personal - Informes, trabajos solicitados, reuniones y gastos de viaje	28.246,45 25.403,10 2.843,35	14,9%
PUBLICACIONES 1.- Publicación de los resultados del proyecto de investigación del léxico de Joakin Lizarraga (Colección MENDAUR) 2.- El euskera en la educación de Navarra. Situación y nueva oportunidad. XXVI Jornadas JAGON <u>Presupuesto de gastos:</u> GASTOS DIRECTOS - Gastos de personal - Trabajos externos	27.964,35 17.410,35 10.554,00	14,7%
DISCURSO DE INGRESO DEL ACADÉMICO DE NÚMERO D. PASKUAL REKALDE. <u>Presupuesto de gastos:</u> GASTOS DIRECTOS - Gastos de personal - Trabajos externos, dietas y gastos de viaje	39.703,64 16.209,89 23.493,75	20,9%
PARTICIPACIÓN EN UN 25% EN LOS PROGRAMAS DE INVESTIGACIÓN DE EUSKALTZAINDIA <u>Presupuesto de gastos:</u> GASTOS DIRECTOS - Gastos de personal - Trabajos externos	94.085,55 82.561,44 11.524,12	49,5%
Subvención 2022	190.000,00	%100



I.2 eranskina

5/2018 Foru Legea betetzeko aurkezten den informazioa

.....jaunak / andreak,
Euskaltzaindiaren (IFZ:.....)
legezko ordezkari naizen aldetik,

AURKEZTEN DUT, nire erantzukizunpean, eta betetzearren Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legea, informazio hau:

-Entitatearen gobernu, administrazio eta zuzendaritza organoen osaketa.

-Kargu bakoitzak gobernu, administrazio eta kudeaketa eginkizunak zer dedikazio araubidetan gauzatzen dituen.

-Entitateak kargudun bakoitzari aurreko urtean ordaindutako ordainsari gordinak eta gainerako diru konpentsazioak, kontzeptuen arabera zehaztuta.

-Urteko azken kontuen kopia.

Anexo I.2

Información presentada en cumplimiento de la Ley Foral 5/2018

D. / Dña.....,
como representante legal de Euskaltzaindia
(NIF:.....)

PRESENTO, bajo mi responsabilidad, y con el fin de cumplir lo establecido por la Ley Foral 5/2018, de 17 de mayo, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, la siguiente información:

-Composición de los órganos de gobierno, administración y dirección de la entidad.

-Régimen de dedicación de cada cargo a las funciones de gobierno, administración y gestión.

-Retribuciones brutas y demás compensaciones económicas que por parte de la entidad han percibido cada uno de los cargos el año anterior, desglosadas por conceptos.

-Copia de las últimas cuentas anuales.

Data / Fecha

Sinadura / Firma

